



ONLINE IKASTAROA ZUZENEAN - Ahozko komunikazioaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika



Uzt. 09 - Uzt. 10 2020

Kod. X09-20

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2020

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 09 - Uzt. 10 2020

Kokalekua

Online zuzenean

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro hau online zuzenean da. Aurrez aurre parte hartzeko aukera ere eskaintzen dugu, nahiz eta ikastaro honetan matrikula presentzialaren modalitatea agortuta dagoen

Ahokotasuna *Euskara* ikasgaian landu ohi da berariaz, baina ahazko komunikazioa edozein ikasgaitan ageri da ikasgelan, edo, garrantzizkoago izan daitekeena, ikasgelatik kanpoko harremanetan. Ahokotasuna eskolan irakats daiteke? Noiz, nola? Ahazkoa lantzeko proposamen didaktikorik bada? Nola eragiten du testuinguru soziolinguistikoak ikasle gazteengan? Gazteek pentsatzen edo sentitzen dutena euskaraz adierazteko aski baliabide ba al dute eskura?

Hezkuntza Arautuan ahokotasunaren didaktikan aritzeko hainbat modu daude; ikastaroan hainbat ikuspegi desberdin aurkeztu eta kontrastatuko ditugu. Gainera, ahokotasunak gazteen hezkuntzan dituen hainbat aje eta erronka aztertuko dituen gogoeta batek ilustratuko gaitu.

Ahokotasuna eguneroko solasean bizi da, egunerokoaren isla diren ahazko kultur sorkuntzetan esate baterako. Ahazko kultur sorkuntza lantzea, egitea eta gozaraztea bada ikasleak ahazko komunikazioan trebatzeko eta zaletzeko manera; ahazko komunikaziorako baliabidez jabetzeko modua. Baina antzerki, bertso, ipuin edo kantagintzaren didaktika emoziozko eta gozameneko hezkuntza bidea da, ez arauzkoa. Gurean baditugu ahazko kultur sorkuntzen heziketan arrakasta duten esperientzia didaktikoak; batzuk biziki garatuak, bestetzuk potentzialitate handikoak. Horiek ezagutaraziko ditugu ikastaroan, ahokotasunaren didaktikaren osagarri; edo zurkaitz, hautatzen den talaiaaren arabera.

Helburuak

Ahokotasuna ikastetxean lantzeko ereduak ezagutaraztea eta kontrastatzea.

Hainbat ahazko kultur sorkuntzen didaktikaren berri ematea.

Ahokotasunaren eta ahazko kultur sorkuntzen didaktikaren lekua eta balioak aldarrikatzea Hezkuntzan.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-07-09

AHOZKO KULTUR SORKUNTZEN DIDAKTIKA

08:45 - 09:00	“Erregistroa eta dokumentazio-banaketa”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Karlos Aizpurua Etxarte Bertsozale Elkartea - Ikerkuntza eragilea
09:00 - 09:45	“Antzerkiaren didaktika edo nola irakatsi antzerkia Hezkuntza Arautuan” Arantxa Hirigoyen Iriarte Axut Antzerki Konpainiako - Arduradun pedagogikoa
09:45 - 10:00	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
10:00 - 10:45	“Kantagintzaren didaktika edo nola irakatsi kantagintza Hezkuntza Arautuan” Gotzon Barandiaran Arteaga Bertsozale Elkartea - Kultur eragilea
10:45 - 11:00	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	“Bertsolaritzaren didaktika edo nola irakatsi bertsolaritza Hezkuntza Arautuan. Mikel Artola Izagirre” Mikel Artola Izagirre Bertsozale Elkartea - Hezkuntza eragilea eta ikertzailea
12:15 - 12:30	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
12:30 - 13:30	Mahai ingurua: “Ahozko kultur sorkuntza Hezkuntza Arautuan” Karlos Aizpurua Etxarte Bertsozale Elkartea - Ikerkuntza eragilea (Moderatzailea) Arantxa Hirigoyen Iriarte Axut Antzerki Konpainiako - Arduradun pedagogikoa Gotzon Barandiaran Arteaga Bertsozale Elkartea - Kultur eragilea Mikel Artola Izagirre Bertsozale Elkartea - Hezkuntza eragilea eta ikertzailea
13:30 - 14:00	“Klownklusioak. Beatriz Egizabal Ollokiegi” Beatriz Egizabal Ollokiegi Kontukantoi

2020-07-10

AHOZKOTASUNAREN DIDAKTIKA

08:45 - 09:00	“Aurkezpena”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Karlos Aizpurua Etxarte Bertsozale Elkartea - Ikerkuntza eragilea
09:00 - 09:40	“Ahozko komunikazioan eragiteko aukerak aztertzen Hezkuntza Arautuan” Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterreko - Teknikaria

09:40 - 09:55	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
09:55 - 10:35	“Ahozketasunaren didaktika: irakaslea ardatz Aroa Murciano Eizagirre “ Aroa Murciano Eizagirre EHU - irakasle eta ikertzailea
10:35 - 10:50	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
10:50 - 11:15	Atsedena
11:15 - 11:55	“Didaktizismotik konplexutasunera: ahozketasunera hurbiltzen kultura herrikoien ikuspegitik. Ainhoa Ezeiza Ramos“ Ainhoa Ezeiza Ramos EHU - irakasle eta ikertzailea
11:55 - 12:10	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
12:10 - 12:50	“Gazteak, eskola eta ahozketasuna“ Jose Ramon Garcia Garmendia EHUko irakasle erretiratua - irakasle erretiratua eta ikertzailea. Ahozketasunean aditua
12:50 - 13:05	Parte-hartze irekia (txatez, ahoz, mikrofonoz)
13:05 - 14:00	Mahai ingurua: “Ahozketasuna Hezkuntza Araututik egunerokora. Aroa Murciano Eizagirre, Ainhoa Ezeiza Ramos eta Joxerra Garzia Garmendia. “ Karlos Aizpurua Etxarte Gipuzkoako Bertsotale Elkarte - Hezkuntza eragilea (Moderatzailea) Aroa Murciano Eizagirre EHU - irakasle eta ikertzailea Ainhoa Ezeiza Ramos Gipuzkoako Bertsotale Elkarte - Hezkuntza eragilea Jose Ramon Garcia Garmendia EHUko irakasle erretiratua - irakasle erretiratua eta ikertzailea. Ahozketasunean aditua

Zuzendaritza



Karlos Aizpurua Etxarte

Bertsozale Elkartea, Ikerkuntza eragilea

Karlos Aizpurua Etxarte (Oiartzun, 1.971). Euskal Filologia (Deustuko Unibertsitatea) eta Enpresa ikasketak (EHU) egin zituen. Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioko ikasketak egin zituen eta UNEDen Idazle Eskola gradu-ondokoak. Oso gaztetatik bertsolaritzaren hainbat esparrutan aritu da: bertsolari, gai-jartzaile, Hitzetik Hortzera saioko erredaktore, Bertsolari Txapelketa Nagusiko langile; bertsogintzako iruzkingile (Euskadi Irratia, Gara, Euskaldunon Egunkaria eta Berria)... 1989tik 2010era bertsolaritzaren irakaskuntzan aritu zen, Oarsoaldean lehenik, eta, 1998az geroztik Ipar Euskal Herrian gaindi. Iparraldean bertsolaritza irakasle aritzeaz gain, transmisioari lotutako aisialdiko proiektuak diseinatu eta kudeatu zituen. Iparraldeko ikastoletan bertsolaritza irakasteko modu berria aplikatu zuen eta ondorioz hamaika bertso eskola eta bertsolari sortu ziren. 2.010az geroztik Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza eragilea da.

Irakasleak



Mikel Artola Izagirre

Gipuzkoako Bertsozale Elkartea

Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen, eta geroztik bertsolaritzaren irakaskuntzan eta bertso-eskoletan eragiten aritu da. Irakaskuntzari dagokionez, Hezkuntza Arautuan nahiz ez-arautuan du esperientzia, eta esperientzia horretan sortutako galderek bultzatuta, metodoaren gaineko berrikuntza prozesua gidatzen dabil Bertsozale Elkartearen. Prozesu hori egoki gauzatzeko, Mondragon Unibertsitateko Berrimet masterrean dihardu.



Gotzon Barandiaran Arteaga

Euskararen eta euskal kulturaren zabalkundea eta plazaratzea iparrorratz, hainbat ekimenen sortzaile eta antolatzaile izan da: Bihotz Bakartien Kluba, Literatura Eskola, Ahotsenea, Literaturia, Jalgi ... Hainbat liburu plazaratu ditu: bi nobela (Errotik eta Gidariaren okerra), bi poema liburu (Arrakalak eta Katamalo) haur-literaturan ipuin ilustratu bat (Arrarotz) eta saiakera bat (Hitzen Ahairea) argitaratu ditu. Antzerkirako ere jardun du (Haritzaren azalera, Inorako bidaia eta Besaulkiak obretan). Diskogintzan eta kontzertuetan ere aritua da: Katamalo), Erantzi eta Plateruena zuzenean. Literaturaz berbetan literaturazaleen Larrabetzuko bilguneko arduraduna da, eta baita ere herri bereko Domekak Hori Bain kantaldi sortako arduraduna. 2008ko urtarritetik hasita hamar urtez Bizkaia Irratiako Irakurrieran saioko gidoigile eta esataria izan zen.



Olatz Bengoetxea Manterola

Soziolinguistika Klusterra, Teknikaria

Hizkuntza teknikaria eta ikertzailea Soziolinguistika Klusterrean. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2012) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra burutua (2019). Lan ibilbidean, euskara irakasle eta euskaraz mintzatzeko hainbat programetan parte hartu du. Horrez gain, hezkuntza

ez konbentzionalean eta aisialdian hezitzaile eta dinamizatzaile lanetan aritu da haur eta gazteekin. Gaur egun, proiektu arduraduna da Soziolinguistika Klusterrean ahozko hizkuntzari buruzko hainbat egitasmo eta trebakuntza ikastaroetan. 2014az geroztik egiten du lan bertan. Eskolan euskararen ahozkotasanarekin lotutako hainbat ikerketatan dihardu.



Beatriz Egizabal Ollokiegi

Magisteritza ikasketak egin zituen. Egun pailazo edo narratzaile gisa aritzen da. 8 urtez bakarka nahiz taldean ipuin kontalaritza eta clown antzerkia landu ondoren 2005.urtean talde propioa sortu zuen Cesar Marcosekin batera. Ordutik ipuin kontalaritzan aritzen dira: narrazioa eta ilustrazioa uztartuz, Clown inprobisaketak egiten aritzen da. Azken urteotan bakarrizketak egiteari ekin dio.



Ainhoa Ezeiza Ramos

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakasle-ikertzaile atxikia da, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Euskal Herriko Unibertsitatea). Psikodidaktikan doktore da komunikazio gaitasunaren ebaluazioaren eremuan. Ilusionista Sozialen Mintegia (ISM) ikerketa taldeko ikertzaile nagusia da. Gaur egun, honako proiektuetako ikertzaile nagusia da: Jakintza herrikoiak eta ezagutza zientifikoa elkarlotuz eta Ahozko historiak Donostiako Altza auzoan.



Jose Ramon Garcia Garmendia

Legazpiarra, Filosofian eta Kazetaritzan doktore, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatean doktore, gaur egungo bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoei buruzko tesiarekin (EHU, 1999). Bertsolaritzari buruzko beste hainbat argitalpen ditu, liburu zein artikulu. Tesiaren bigarren zatian, bertsoen bidez ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko metodo bat aurkezten du, gero Bertsozale Elkartearen babesetan zertxobait garatu zena, Esan Ahala izenburupean. Ahozko komunikazioari dagokionez, 2008an Jendaurrean Hizlari eskuliburua argitaratu zuen. Idazle gisa, genero gehienak landu ditu, eta hainbat literatur lehiaketa irabazi. 2009an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Abadia saria eman zion, euskararen alorrean egindako lanarengatik.



Arantxa Hirigoyen Iriarte

17 urtez Seaskako Etxepare lizeoan euskara eta literatura irakasle gisa lanean ibili ondoan, joan den irailaz geroztik Axut! kolektiboan lan egiten du, Ximun Fuchs eta Manex Fuchsekin. Hezkuntza artistikoaz eta bitartekaritza/mediazioaz arduratzen da, bereziki ikastetxeetan gauzatzen ditugun proiektuak kudeatuz.



Aroa Murciano Eizagirre

Ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea da. Hezkuntza Zientzietan Doktorea. Psikopedagogia ikasketak egin zituen eta hizkuntzen didaktika eta kulturartekotasunean espezializatu zen EKOMU masterrean. Ikuspegi sozio-diskurtsiboa du oinarri eta irakasleen prestakuntza eta hizkuntzen ikas-irakaskuntza dira bere ikerketa gai nagusiak. MIKER (HUHEZI) ikertaldean aritu da urte askotan, eta egun, ELEBILAB (EHU) ikertaldean ikertzaile dihardu, Gasteizko Letren Fakultatean.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2020-06-01 ARTE	2020-07-09 ARTE
GONBIDAPENA	0 EUR	-
OROKORRA	-	65,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	55,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	55,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	55,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	55,00 EUR

Kokalekua

Online zuzenean

Online zuzenean